

Iruña, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako mahai sektoriala zein hezkuntza kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen batzordea deitzea lehenbailehen, ezinbestekoa!

Azken egunetan gai batzuen inguruan zalantzak eta kezak sortu dira eta ezinbestekoa da mahai sektorialerako bilerara deitzea horiek argitzeko. Besteak beste, hauek dira premia-koenak:

- **LEP:** azaroaren 15ean, administrazioaren mahai orokorra bukatu ondoren, aurtengo oposizio deialdi arruntean aterako diren lanpostuak jakinarazi ziren. Horrek zalantza handiak sortu ditu irakasleengan, aurtan aurkeztu den hezkuntzako 3. deialdia baita eta datu orokorrak, lanpostu guztiekin, ez baitira argitaratu. Gobernuak azaldu behar du zein diren hezkuntza sistemaren beharrak eta mahai sektorialeko sindikatuekin negoziatu.
- **Irakasle funtzionarizatuen jubilazioa:** 2019an 60 urte beteko dituzten irakasle funtzionarizatuen aurretiazko erretiroa kolokan dago eta ez dakigu zer gertatuko den langile horiekin.
- **Interinoek Gradua kobratzeko eskubidea:** Auzitegi Gorenak Gradua funtzionario zein interinoen eskubidea dela baieztatu du eta Hezkuntzak nola kudeatuko du gaia.
- **Lekualdatze-lehiaketa:** bakanteen inguruko irizpideak ezagutzeko.
- **Google** enpresa transnazionalarekin Hezkuntza Departamentuak duen hitzarmenaren berri izateko.

Bide batez, ez da inoiz bildu hezkuntza kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen batzordea, eta uste dugu garaia dela, batez ere 2019ko Nafarroako aurrekontuen proiektua aurkeztu baitute jadanik. Ikusi behar da aurrekontuetan sartu diren zenbatekoak aski diren itunean jasotako zenbait konpromiso betetzeko: ordezkapenak lehengo egunetik egitea, udako oporrak kobratzea, maisu-maistren eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza zuzeneko saio murrizketa, adinagatiko saio murrizketa, etab. Azkenik gogoratu ere, itunean bertan jasotzen zela hiru hilabetetik behin gutxienez bilduko zela mahai hau, eta Ituna abuztuaren 24an sinatu zela.

Horregatik espero dugu bi bilerak lehenbailehen izatea.

¡Necesaria una convocatoria cuanto antes tanto de la mesa sectorial como de la comisión de seguimiento del pacto!

En los últimos días han surgido dudas y preocupaciones sobre diferentes temas, y es imprescindible convocar la mesa sectorial para aclarar estos temas. Estos serían los puntos más necesarios a debatir:

- **OPE:** el 15 de noviembre, después de finalizar la mesa general de la administración, se dieron a conocer las plazas que se van a convocar en la convocatoria de oposición ordinaria. Este tema ha creado mucha incertidumbre en el profesorado, puesto que es la 3ª convocatoria publicada este curso académico por el departamento sin haber publicado datos generales que incluyan todas las plazas. El gobierno debe explicar cuáles son las necesidades del sistema educativo y negociar con todos los sindicatos de la mesa sectorial.

- **Jubilación del profesorado funcionario:** la jubilación anticipada del profesorado que cumpla 60 años en el 2019 está en entredicho y no sabemos qué pasará con estas personas trabajadoras.

- **Derecho de los interinos al cobro del Grado:** el Tribunal Supremo confirma el derecho al Grado de los interinos equiparándolo al de los funcionarios. Aclaración de cómo se prevé la gestión desde Educación.

- **Concurso de traslados:** conocimiento de criterios en cuanto a las vacantes.

- Información sobre el convenio entre el Departamento de Educación y la empresa transnacional **Google**.

Del mismo modo, la comisión de seguimiento del pacto para la mejora educativa nunca ha sido convocada y creemos que ya es hora, ya que el proyecto de los presupuestos Navarros del 2019 ha sido presentado. Queda por ver si la cuantía presupuestada es suficiente para hacer frente a los compromisos adquiridos en el pacto: sustituciones desde el primer día, cobro de las vacaciones de verano, reducción de las horas de docencia directa tanto del profesorado de secundaria como de docentes de infantil, primaria y especialistas.

Por último, cabe recordar que el propio pacto recoge que dicha comisión se reunirá al menos una vez cada tres meses, y el Pacto fue firmado el 24 de Agosto. Por ello esperamos que las dos reuniones se lleven a cabo lo antes posible.



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus